

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- OHAR OROKORRAK (OO)
- HH OHARRAK (HH)
- LH OHARRAK (LH)
- DBH OHARRAK (DBH)

OHAR OROKORRAK (OO)

OO. KILOMETROAK

- **KLIKmetroak.** 2019ko urriaren 6an Kilometroak jaia ospatuko dugu Zarautzen. Salvatore Mitxelena Ikastolari egokitu zaio Gipuzkoako Ikastolen aldeko jai erraldoia antolatzea. Azarotik lanean buru-belarri gabiltza ekimen ezberdinak bultzatzen, jaia ez baita egun bakarrekoa. Horien artean dugu **KLIKmetroak** ekimena. **KLIKmetroak** ekimenaren zortzigarren edizioa izango da aurtengoa. Hain zuzen ere, 2011. urtean jaio zen, Azpeitiko Ikasberri ikastolak antolaturiko Kilometroak jaian. Gipuzkoa mailan burutzen den Internet bidezko ekimen nagusienetarikoa da, eta euskara hutsean burutzen den sareko ekimen esanguratsuenetarikoa. Hain zuzen ere, bere sortze urtean, 2011n, publizitate arloko Argia saria jaso zuen, egindako lana aitortuz eta proiektuaren izaera berritzailea azpimarratuz. **KLIKmetroak** ekimenaren helburua aurtengo zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea da. Horretarako, ezinbestekoa da milaka pertsonen parte hartzea eta metro horien babesleak lortzea. Bisitari bakoitzak metro bat egin ahal izango du, eta hala, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, orduan eta itzuli gehiago emango zaizkio zirkuitu birtualari. Bisitariak egindako metro bakoitzeko babesleak ekarpen ekonomikoa egingo dute Kilometroak jaiaren alde. Egitasmo honen barruan zuengana zuzentzen gara bertan parte hartzeko gonbidapena luzatuz. Horretarako, klikmetroak.kilometroak.eus web orrian sartu eta “egin zure metroa!” barraren gainean klikatuz, bertan azalduko zaizkizun argibideak jarraitu besterik ez duzu egin behar (mezu labur bat -250 karaktere gehienez- eta argazki bat bidaltzea besterik ez litzateke izango). Asko eskertzen dugu zure parte hartzea.
- **MENDIMETROAK.** Mendimetroetako lehen kamisetak jaso dituzte jada. Enara eta Layana Mendiolak egin dituzte mendimetroak.eus helbidean beraien mailari dagozkien hiru ibilbideak, Gaizka Mendiola eta Olaia Epelde gurasoekin batera, eta kilometrotako dendan zain zituzten kamisetak. Informazio gehiago: <https://www.kilometroak.eus/albisteak/239>
- **IRITZI-ARTIKULUA.** Maiatzeko iritzi-artikuluak Jone Azkoagaren eskutik heldu zaigu, “Milaka lore, zurekin gaude!” izenburupean. Irakurri, merezi du eta. Hemen duzue lotura: <https://www.kilometroak.eus/milaka-lore-zurekin-gaude>

OO. IBILALDIA

Igande honetan, maiatzak 19, IBILALDIA Lekeition ospatuko da, AZKUE Ikastolaren eskutik eta “HARATZAGO” lelopean. Informazio gehiago: <https://ibilaldia.eus/> Eta hemen duzue ikastola honen zuzendariak idatzirik iritzi-artikulu interesgarria:

<https://www.berria.eus/paperekoa/1896/022/001/2019-05-17/hel-dieziaiogun-behingoz-herri-honek-behar-duen-eskolari.htm>

OO. BIRSORTU PROIEKTUAN PARTE HARTUKO DUGU!

Maiatzean eta ekainean Euskal Herriko 14 ikastetxetan jarriko da martxan material berrerabiliak probatzeko proiektu pilotua, Hik Hasi Egitasmo pedagogikoak eta Emaus Gizarte Fundazioak elkarlanean diseinatuak. Proiektuan parte hartuko duenetako bat gure ikastola izango da. Birsortu proiektua sormenean eta berrerabilitako objektuen ikerketan ardaztutako proiektu kultural, pedagogiko eta jasangarria da, zeinak Italiako Reggio Emiliako eskola ospetsu eta erreferentziazkoaren REMIDA proiektua duen oinarri. Proiektu honek, enpresa desberdinetatik jasotzen diren hondakin anitzak eskolen eskura jarriko ditu, haurrek esperimendu, manipulatu eta beste erabilera bat eman diezaieten. Proiektuak, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agenciaren eta Foru Aldundiaren Etorbizuna Eraikiz-en babesarekin du. Proiektua,

komunikabideen bidez, UEUko Udako Ikastaroetan aurkeztuz eta EMAUSEk egindako bidea jasoko duen bideoaren bidez emango da ezagutzera. Prozesu honen bidez, Kontsumo arduratsua eta Inklusioa sustatu nahi da EAeko eskolatan. Birsortun **HH5eko ikasleek** hartuko dute parte, eta dagoeneko Emaus Gizarte Fundazioko kideek ekarri dizkigute ikastolara fabriketan albo batera utzi dituzten materialak. Material horiekin, txokoa atondu eta gure ikasleak laster izango dira prest esperimentatzen hasteko. Ea zer- nolako bizitza ematen dieten hondakinak zirelakoan bazterrean geratzera zihoazen materialei!!

REMIDA PROIEKTUARI buruz informazio gehiago: <https://www.reggiochildren.it/atelier/remida/>

BIRSORTU PROIEKTUARI BURUZ: <https://www.hikhasi.eus>

OO. IKASTOLAKO JAIA

Ikastola jaiko bazkarirako txartelak maiatzaren 17tik 24a bitartean izango ditugula salgai gogorarazi nahi dizuegu.

OO. AZOKA SOLIDARIOA

LH 6ko ikasleok, EKI proiektuaren barnean, buru belarri jardun gara beste herrialde batzuetako errealitateak ezagutu eta gurearekin alderatzen. Lanketa horren ondorioz, **AZOKA SOLIDARIO** bat prestatzea erabaki dugu eta bertan guk egindako hainbat material aurkituko dituzue: hazi zakuak, pultserak, koilareak, panpinak, blokak, gatz poteak... Honetaz gain, hainbat mokadu goxo dastatzeko aukera ere emango dizuegu. **AZOKA SOLIDARIO** honetan lortzen dugun dirua **"Misevi GKE"**-ari bideratuko diogu. **Maiatzak 24, ostirala, 16:00etatik aurrera, Ikastola inguruan.** Bertan elkar ikusiko dugulakoan!

OO. LGBTI KOLEKTIBOENGANAKO FOBIAREN AURKAKO EGUNA

Gaur, maiatzak 17, izango da fobiaren aurkako eguna. Horren harira, herri mailan, hainbat ekintza antolatu da. Frantziskotarren elizatik hondartzara doan pasabidean ortzadar bat margotuko da, 17:30ean. Diseinua ikastolako gurasoa den Goretta Aranbururena da.

HH OHARRAK (HH 2 - LH2)

HH 2. BILERA DEIALDIA

Maiatzaren 21ean, 18:00etan, Ikastolako Aretoan, HH 2ko gurasoekin bilera egingo dugu. GAIA: HH 3tik aurrera eskainiko diren zerbitzuen (janela, garraio, zaintza) azalpena.

HH 4. ORIORA IRTEERA

Maiatzaren 24an, ostirala, Haur Hezkuntzako 4 urteko ikasleekin ORIOra txangoa egingo dugu egun osorako. Trenez joango gara eta autobusez bueltatu. Joanean betiko ordutegia mantenduko da, eta umeak gelan bertan egongo dira 16:30ean. Haurrak, motxila txiki batean ura, hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute; kontutan izan kristalezko ontzirik ez dutela eraman behar. Eskertuko genizueke poteko jogurtik ez eramatea (edatekoak eraman daitezke), eta fruta jarri nahi baduzue tupper batean sartzea. Horrez gain, arropa eta oinetako egokiak, bisera izena jarrita eta etxetik krema emanda etortzea eskatzen dizuegu. Bidaiaren kostua 4,10€ izango da. Kopuru hau maiatzeko kuotarekin batera kobratuko zaizue.

HH 5. TXURRUKARA IRTEERA

Dakizuen bezala, **5 urteko ikasleekin Orioko Txurruka Aterpetxera** irteera burutuko dugu. irteera **maiatzaren 23an izango da eta itzulera 24an.** ERAMAN BEHARREKOAK: Lo-zakua, nezeserra, pijama, aldatzeko, azpiko eta gaineko arropa eta oinetakoak, toalla txiki bat, txankleta edo etxeko zapatilak (barruan ibiltzeko). Beste motxila batean, lehenengo eguneko hamaiketakoa. Eguraldi ona baldin bada bisera eta etxetik krema emanda joatea komeni da eta eguraldi txarra izanez gero, xira eta oinetako egokiak. Mesedez eramaten duten arropa guztiari izen-abizenak jarri. Bestalde, ohiko ordutegia mantenduko da bai joaneko egunean eta bai itzuleran. Irteeraren kostua 42,80 eurokoa izango da eta maiatzeko kuotarekin batera kobratuko zaizue.

HH. GURASO BILKURA

Apirilean egindako guraso bilkuraren akta lotura honetan aurkituko duzue:

<https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

LH OHARRAK (LH 3 - 6)

LH 4 **FIE** Proiektua

Datorren irailan 5. mailako ikasleek, iaz egin zuten bezala, Ingelesa indartzeko hamabost eguneko murgilketarekin emango diote hasiera ikasturteari. Honen berri emateko, ingeleseko departamentuak gurasoentzat bilera antolatu du, **maiatzaren 23an, osteguna, 16:30ean**, Ikastolako aretoan.

LH 4, 5, 6 Hitzaldia: **HEZKIDETZA, TRATU ONAK ETA SEXUEN HEZIKETA**

Hilabete honetan zehar zuen seme-alabek, Udalak bideratzen duen Hezkidetza eta Tratu onak sustatzeko programa dela eta "Harremanak" taldearen hezitzaile eta sexologoek esku tailerrak burutu dituzte. LH 4. 5. eta 6. mailakoek gai ezberdinak jorratu dituzte, tratu onak, hezkidetza eta sexualitatearekin zerikusia dutenak. Baina langintza hau ez da soilik ikastetxearen ardura, baita familiakoa ere, beraz hau kontutan izanda, gai honen inguruko hitzaldira gonbidatu nahi zaitugu.

Hitzaldi honetan ondorengo gaiak jorratuko dira:

- Tailerretan zuen seme-alabekin egindakoaren eta ikusitakoaren deboluzioa.
- Sexuen heziketaren esanahia eta zentzu zabala
- Etxetik eta familiaren bidez burutzeko hainbat giltzarri.

Gurekin izango da **Aitziber Estonba** Harremanak taldeko kidea.

Norentzat: LH 4. 5. eta 6. mailako ikasleen gurasoei

Noiz: **Maiatzak 22, asteazkena, 18:00etan**

Lekua: Areto nagusian

Oharra: **Gutxieneko kopura bete ezean, ez da aurrera eramango**. Beraz parte hartzeko asmorik baduzu tutoreari jakinarazi edota e-mail bat bidali zarautz@ikastola.eus helbidera ASTEARTEA baino lehen.

LH **GURASO BILKURA**

Apirilean egindako guraso bilkuraren akta lotura honetan aurkituko duzue:

<https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

LH **TELEFONO MUGIKORRAK**

Telefono mugikorren erabilera Lehen Hezkuntzan gaiari buruzko informazioa ondorengo loturan aurkituko duzue: <https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1245>

DBH OHARRAK (DBH)

DBH **GURASO BILKURA**

Apirilean egindako guraso bilkuraren akta lotura honetan aurkituko duzue:

<https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA.

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)

OO. KILOMETROAK

- El 6 de octubre se celebrará la fiesta de Kilometroak en Zarautz. La gran fiesta de las ikastolas de Gipuzkoa la organizará la Ikastola Salvatore Mitxelena. Desde noviembre vamos trabajando en distintas actividades, ya que la fiesta no es de un solo día. Entre ellas tenemos **KLIKmetroak**. El objetivo de la actividad **KLIKmetroak** es conseguir dar vueltas y vueltas al circuito virtual. Para ello, es imprescindible que miles de personas participen y conseguir patrocinadores para esos metros. Cada visitante podrá realizar un metro. Cuanta más gente participe más vueltas se le dará al circuito virtual. Por cada metro realizado por los visitantes, mayor será la aportación económica que realizarán los patrocinadores a favor de la fiesta de Kilometroak. Por ello, queremos invitaros a participar en este proyecto. Para conseguirlo, debéis entrar en la página web **klikmetroak.kilometroak.eus** y pulsar sobre “egin zure metroa!”. Sólo debéis seguir las instrucciones indicadas (agregar un breve mensaje -250 caracteres como máximo- y una foto). ¡Gracias por participar!
- **MENDIMETROAK**. Ya se han recogido las primeras camisetas de Mendimetroak. Enara y Layana Mendiola realizaron tres excursiones de mendimetroak.eus correspondientes a su nivel, junto con su madre Olaia Epelde y su padre Gaizka Mendiola. Recibieron las camisetas en la tienda de Kilometroak. Más información: <https://www.kilometroak.eus/albisteak/239>
- **ARTÍCULO DE OPINIÓN**. Ya se ha publicado el artículo de opinión del mes de mayo, de la mano de Jone Azkoaga, bajo el título “Milaka lore, zurekin gaude!”. <https://www.kilometroak.eus/milaka-lore-zurekin-gaude>

OO. IBILALDIA

Este domingo, 19 de mayo, se celebrará la fiesta de las Ikastolas de Bizkaia en Lekeitio de la mano de la Ikastola AZKUE, bajo el lema “HARATZAGO”. Más información: <https://ibilaldia.eus/> Y a continuación un interesante artículo de opinión del director de esta ikastola:

<https://www.berria.eus/paperekoa/1896/022/001/2019-05-17/hel-dieziaiogun-behingoz-herri-honek-behar-duen-eskolari.htm>

OO. PARTICIPAMOS EN EL PROYECTO BIRSORTU!

Durante los meses de mayo y junio se pondrá en marcha en 14 Centros Escolares el proyecto piloto BIRSORTU que tiene como objetivo probar material reutilizado. Este proyecto ha sido diseñado por Proyecto Pedagógico HIK HASI y la Fundación Social EMAUS. En lo que respecta a nuestra ikastola, será el alumnado de HH5 el que tome parte en dicho pilotaje. BIRSORTU se trata de un proyecto cultural. Pedagógico y sostenible que tiene como eje principal la investigación de la creatividad y del uso de material reutilizado. Así mismo, el proyecto tiene como base el proyecto REMIDA de la reconocida escuela italiana de Reggio Emilia. Para más información: <https://www.regiochildren.it/atelier/remida/> <https://www.hikhasi.eus>

OO. FIESTA DE LA IKASTOLA

Os recordamos que los tickets para la comida de la fiesta de la Ikastola estarán a la venta del 17 al 24 de mayo.

OO. MERCADO SOLIDARIO

Los alumnos y alumnas de LH6, tras poner el punto de mira en la situación en la que se encuentran los y las habitantes de otros países, hemos tratado de comparar dicha situación con nuestra vida cotidiana. Con el fin de solidarizarnos con los países más vulnerables, hemos organizado una “AZOKA SOLIDARIOA” en la cual, se pondrán a la venta objetos elaborados con nuestras propias manos; tales como: sacos de semillas, pulseras, collares, blocks, botes de sal... Además tendréis la oportunidad de probar nuestros deliciosos bocados. Por último, debemos destacar que el dinero que se obtenga mediante la “AZOKA SOLIDARIOA”, irá destinado a la organización “**Misevi GKE**”. Viernes, 24 de mayo, a partir de las 16:00 h., en los alrededores de la ikastola. ¡Esperamos veros allí!

OO. DÍA CONTRA LA FOBIA AL COLECTIVO LGBTI

Hoy, 17 de mayo, será el día contra la fobia al colectivo LGBTI. Por ello y a nivel local se han organizado varios eventos. Entre ellos, en paso subterráneo entre la iglesia de los Franciscanos y la play se pintará un arco iris, diseñado por la madre de la ikastola Goretti Aranburu.

HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)

HH 2. CONVOCATORIA DE REUNIÓN

Convocamos a todas las madres y padres de **HH 2 a la reunión que celebraremos el 21 de mayo, a las 18:00 h. en el Salón de Actos.** TEMA: Información sobre el funcionamiento de los servicios (comedor, transporte, guardería) a partir de HH 3.

HH 4. SALIDA A ORIO

El **viernes, 24 de mayo**, los alumnos y alumnas de **4 años** de Educación Infantil vamos a ir a **ORIO** para todo el día. Iremos en tren y volveremos en autobús. Se va a mantener el horario habitual, y a la vuelta los/las alumnos/as saldrán como siempre de su aula. Deberán llevar en una **mochila pequeña, agua, el almuerzo y la comida**; tener en cuenta que no deben llevar **ningún envase de vidrio**. Os agradeceríamos que no les pongáis botes de yogur (pueden llevar los bebibles), y si queréis ponerles fruta que lo hicierais dentro de un tupper. Además deberán llevar calzado y ropa adecuada, visera con su nombre y deben de llevar la crema de protección solar dada desde casa. El costo del viaje será de **4,10 €**. Esta cantidad se os cobrará **junto con la cuota de mayo**.

HH-5. SALIDA A TXURRUKA

Como sabéis, vamos a ir con los/las alumnos/as de 5 años al albergue Txurruka de Orio. La salida será el día 23 y la vuelta el 24 de mayo. **LO QUE HAY QUE LLEVAR:** Saco de dormir, neceser, pijama, un juego de muda interior y de calle de recambio, una toalla pequeña, chancletas, o zapatillas de casa (para andar dentro) y en una mochila pequeña, el almuerzo del primer día. En caso de buen tiempo conviene llevar visera y darse en casa la crema para el sol y en caso de mal tiempo sira y calzado adecuado. Por favor, poned nombre y apellidos a toda la ropa que lleven. Por otro lado, mantendremos el horario habitual tanto para la ida como para la vuelta. El coste de la salida será de 43 euros y se os cobrará junto con la cuota de mayo.

HH. GURASO BILKURA

Acta de la asamblea celebrada en abril: <https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

LH / E. PRIMARIA (LH)

LH 4. PROYECTO FIE

El próximo mes de septiembre, los alumnos y alumnas de 5º LH, comenzarán el curso con un programa especial para impulsar el Inglés, como venimos haciéndolo desde hace ya cinco años. Para informar de esto con detalle, el departamento de Inglés ha convocado una reunión que se celebrará el **próximo jueves, 23 de mayo, a las 18:30 h., en el salón de actos de la Ikastola.**

LH 4, 5, 6 Charla: COEDUCACIÓN, BUENOS TRATOS Y EDUCACIÓN DE LOS SEXOS

Durante este mes vuestros hijos/as han realizado talleres dentro del programa que lleva a cabo el ayuntamiento en relación a estos temas, con las educadoras y sexólogas del grupo "Harremanak". En 4º, 5º y 6º han tratado temas diversos relacionados con la coeducación, sexualidad y buenos tratos. Sin embargo, esta tarea no es solo responsabilidad del centro escolar, en gran medida es más de la familia. Por ello, y para reflexionar sobre estos temas, os invitamos a la charla.

Temas que se tratarán en dicha charla:

- La devolución de lo observado en las aulas durante los talleres.
- El significado y concepto amplio de la sexualidad y educación de los sexos.
- Pautas para trabajar este tipo de temas desde el ámbito familiar.

La ponente será Aitziber Estonba, sexóloga de Harremanak elkarte.

Dirigido a: padres, madres y tutores/as de 4º, 5º y 6º de Primaria

Cuándo: 22 de mayo, miércoles, a las 18:00 h.

Lugar: Salón de actos

Nota: **Si no hay un mínimo de personas apuntadas no se llevará a cabo.** Por ello, os pedimos que informéis de vuestra intención de acudir al tutor/a o enviando un e-mail a zarautz@ikastola.eus antes del MARTES.

LH TELÉFONOS MÓVILES

En el siguiente link encontraréis información sobre el uso de móviles en Educación Primaria:

<https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1245>

LH GURASO BILKURA

Akta de la asamblea celebrada en abril: <https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

DBH / E.SECUNDARIA (DBH)

DBH.GURASO BILKURA

Akta de la asamblea celebrada en abril: <https://zarauzkoikastola.eus/eu/node/1244>

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA